



EUSKADIKO MERKATARITZA-SEKTOREKO ENPLEGUA ETA ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila ISEAK Fundazioaren laguntzaz ari da Euskadiko merkataritza-sektoreko enplegua sakon aztertzen, sektorearen etorkizuneko erronkak zehazteko eta politika publikoak bideratzeko.

ISEAK Fundazioa ikerketa eta transferentzia ekonomiko zein sozialeko zentroa da, eta aditua da arazo sozialen diagnostikoan zein datuen analisiaren bidez eraginari buruz egindako ebaluazioan. Era berean, behar besteko jakintza ere eskaini du, Euskadiko merkataritza-sektoreko enpleguaren diagnostiko xehatua egiteko.

Lehenengo azterlana egin da, eta 2023ko maiatzean amaitu zen: **“Euskadiko merkataritza-sektorearen eraldaketa 2016-2021ean”**, baita bigarrena ere: **“Merkataritza-sektoreko enplegua Euskadiko iragaitza sektorial, teknologiko eta demografikoaren aurrean”**. Hain zuzen ere, horren lehenengo emaitzak daude eskuragarri, eta, aurreikuspenen arabera, 2024. urtearen amaierarako bukatuko da.

1. Euskadiko merkataritza-sektorearen eraldaketa 2016-2021ean

2023. urtean, Euskadiko merkataritza-sektorearen aldaketari buruzko diagnostikoa egin zen bi uneren artean: 2016. urtea eta pandemiaren osteko 2021. urtea, batez ere Laneko Bizitzen Lagin Etengabeak eskainitako datuen bidez merkataritzako enpleguaren barruko eraldaketa aztertzeke asmoz. Datu-base horrek, hain zuzen ere, Gizarte Segurantzara afiliatutakoen %4ko afiliazio-fluxuei buruzko mikrodatuak eskaintzen ditu, eta afiliatu guztien adierazgarri da.

2023ko maiatzean horren ondorioz sortutako **“Euskadiko merkataritza-sektorearen eraldaketa 2016-2021ean”** azterlana herritarren esku jarri da Enfokamer Merkataritzaren Euskal Behatokian.

Merkataritza Euskadiko hiru jarduera ekonomiko nagusietakoa da industriarekin zein zerbitzuekin batera, enplegu guztiaren %13 garatzen da bertan eta BPGd-n daukan ekarpena %11koa izan zen 2021. urtean.

Euskadiko merkataritzako profil sozioekonomikoa eta lanekoa kontuan hartuta, esan egin beharra dago oso sektore zahartua dela enplegu autonomoan, batez ere, bertako langileen %77k 40 urte baino gehiago dituztelako. Bertan, gainera, emakumeak nagusi dira soldatapeko enpleguan, batez ere, haien kopurua %54koa delako. Bestetik, ikusten denez, langile atzerritar gehiago daude enplegu autonomoan (%7) soldatapeko enpleguan baino (%5).



Edonola ere, soldatapeko 4 enplegutatik ia-ia 3 50 langile baino gutxiagoko enpresetan garatzen dira, eta 4 enpresatetik bat sortu berria da edo 5 urte baino gutxiago dauzka. Horrez gain, datuen arabera, nabarmendu egin beharra dago merkataritzan hazten ari diren beste sektore batzuetan baino kontratu mugagabe gehiago daudela: kontratuen bi heren, hau da, batezbestekoa baino %10 gehiago, alegia.

Alde handiak daude euskal merkataritzako sektore handien artean: merkataritza txikizkariko lan-afiliazioa %62koa da; handizkarikoa, %28koa; eta ibilgailuen salmenta zein konponketakoa, %10ekoa. Ibilgailuen salmenta eta konponketa gizonen sektorea da batez ere, mikroenpresek osatzen dute eta kontratu egonkorrak ditu ezaugarri bereizgarri. Merkataritza handizkaria, ordea, sektore zahartuagoa da. Bertan, 3 langiletatik 2 gizonak dira, enpresa txikiak osatzen dute eta kontratuak egonkorrak dira. Merkataritza txikizkaria sektore zahartuagoa da autonomoen artean; eta gazteagoa, soldatapekoen artean. Gainera, 10 enplegutatik 7 emakumeek garatzen dituzte, enpresak handiagoak dira, kontratuak ez dira hain egonkorrak eta langile atzerritarren ehunekoa handiagoa da.

Euskadiko merkataritza-sektoreko enpleguak atzera egin du beste euskal jarduera ekonomiko batzuen aldean, baina beste autonomia-erkidego batzuetakoaren aldean ere bai, honako hauexen gaineratik baino ez dagoelako: Asturias, Balearrak edo Ceuta eta Melilla.

Teknologia berriak, globalizazioa eta kontsumo-ereduetako aldaketak sakon-sakon aldatzen ari dira sektorea, eta, **2016tik 2021era, afiliazioaren %1 galdu du**, hau da, 1.412 enplegu, 2016. urteko 136.621 afiliatuetatik 2021eko 135.209 afiliatuetara jaitsi da-eta.

Nolanahi ere, merkataritzako enplegu guztiak ez dira modu berean murriztu, **soldatapeko enplegua %2 hazi delako eta enplegu autonomia %7,9 murriztu delako**. Dena dela, soldatapeko enplegua euskal ekonomiako beste sektore batzuetan baino gutxiago hazi da.

Horren ondorioz, esan daiteke 2016. urtetik 2021. urtera euskal merkataritza-sektorean gizonak direla nagusi, zahartuago dagoela, atzerritar asko laneratu direla, merkataritzako enpresa handiagoak daudela eta Espainiako beste probintzia batzuetan egoitza soziala duten establezimendu gehiago daudela, baina kontratu hobeak daudela ere bai.

Azterlan honetan, gainera, **afiliazio-fluxuak** aztertu dira Euskadiko **enplegu-motaren eta merkataritzako azpisektorearen arabera**, merkataritzan dirautenak nor diren, sektorea nork uzten duen eta langile berriak nor diren jakiteko asmoz. Horrez gain, azterketa horri esker, jakin egin daiteke zergatik uzten duten sektorea edo bat egiten duten, eta politika publikoak egiteko datu erabilgarriak ere eskaintzen ditu.



Enpleguko joerak

Antzeman diren joera nagusien artean, lehenengo eta behin, **soldatapeko enpleguko txandaketa handia** aipatu beharra dago, sektoreko iraunkortasun-tasa txikia da-eta. Bertan, gazteak, langabetuak, ez-aktiboak eta etorkinak nagusi dira laneratzeko orduan nahiz lana uzteko orduan. Halaber, antzeman denez, arrakala handia dago lan-baldintzetan tokian tokiko 30 urtetik gorako langileen eta baldintza ezegonkorragoetan dauden 30 urtetik beherakoen eta etorkinen artean, lehenengoen egonkortasuna handiagoa delako.

Enplegu autonomoan, txandaketarik ez dagoela nabarmendu beharra dago, eta, bertan, 2.400 laneratu gutxiago daude lana utzi dutenen aldean, baina, batez ere, erretiroengatik eta negozioen itxierengatik. Laneratu berrien artean, emakumeak dira nagusi, eta etorkin asko ere badaude (%19). Ikusten denez, espezializatu gabeko merkataritza txikizkariko enpleguak gora egin du, baina denda txiki espezializatueta behera egin du, ordea.

Azkenik, baieztatu egin da **enpresa handietan enpleguak gora egin duela**, banaketako enpresa handiak eta nazio-mailako zein nazioarteko kateak gehitu direlako eta laneko baldintzek hobera egin dutelako enpresa ertain nahiz handietan. Hori dela eta, enpresa txikiek zailtasunak dituzte lan-baldintzen arloan lehiatzeko.

Erronka handiak

Merkataritza-sektoreko enpleguari buruzko azterlan honetan antzemandako erronka nagusia **kontsumo-ereduetako aldaketan** ondorioz sortu da. Bertan, online kontsumoak gora egin du erabat COVID19aren pandemiatik, eta enpresek online salerosketari ekin diote. Nolanahi ere, familiek gehiago gastatzen dute hezkuntzan, osasunean nahiz etxebizitzan; eta gutxiago, kontsumoko beste produktu batzuetan.

Emankortasunaren faktoreak 2020. urterako Txirotasunari eta Desberdintasun Sozialei buruzko Inkestako datuen bidez aztertu ostean, ondorio moduan atera da merkataritza-sektoreko **soldatak xumeak direla prestakuntza urriko** beste jarduera batzuetan bezala. Bestek beste, honako hauexek izan daitezke horren arrazoiak: emankortasuna geldi-geldi egotea, prestakuntza-mailak batezbestekoa baino txikiagoak izatea, zahartzea eta prestakuntza urriko langileak iristea. Hori dela eta, ez da egoera hori aldatzen.

Azkenean, **lehiari** dagokionez, **enpresa handietako metaketa handitu egin denez**, lan-baldintzek hobera egin dezakete soldatapeko langile batzuentzat.



Azterlanaren amaieran, belaunaldien txandaketarako, emankortasunaren hobekuntzarako eta lehiaren bermerako politika publikoetako ekintza-lerroak proposatzen dira; esate baterako, honako hauexek, besteak beste: oztopo administratiboak mugatzea, teknologia aurreratuak suspertzea, negozioen irekierak sustatzea, langile autonomoen zein soldatapeko berrien trebetasunak hobetzea, erdi-mailako nahiz goi-mailako prestakuntza daukaten gazteak laneratzeko prozesua suspertzea, enpleguko zerbitzuekin estu-estu lan egitea eta, sektorean bertan, enplegu-baldintza onak zabaltzea.

2. Merkataritza-sektoreko enplegua Euskadiko iragaitza sektorial, teknologiko eta demografikoaren aurrean

Gizarte Segurantzako erregistroei buruzko datuak eskuratzean, merkataritza-sektoreko enpleguari buruzko azterketa xeheagoa egin ahal izan da, 2017tik 2023ra arte herrialde osoko Gizarte Segurantzako hileko afiliazioen erregistro guztiak egon direlako eskuragarri.

Datu berriei esker, **2017tik 2023ra arteko afiliazio guztien hileko bilakaera osoa** izan dugu eskuragarri. Merkataritzako afiliazioen **gehieneko kopurua 2019ko ekainean** erregistratu zen, 145.402 afiliazio egon ziren-eta. **Gutxieneko kopurua, ordea, 2020ko apirilekoa** izan zen, 136.107 afiliazio erregistratu zirelako. 2023ko martxoan, 138.311 afiliazio egon zirenez, jaitsiera %1,4koa izan zen 2017ko martxoaren aldean. Euskadiko guztizko afiliazioa, ordea, %6,8 igo da epealdi horien artean.

Enplegu-araubidearen arabera aztertu da afiliazioa, eta **soldatapekoen ehuneko** %70ekoa zen 2017ko martxoan. 2023ko martxoan, ordea, **%72koa** izan zenez, autonomoak merkataritza-sektoreko afiliatuen %30etik %28ra jaitsi ziren.

Horrez gain, enpleguaren osaketa Euskadiko 2017-2023ko merkataritzako enpresen tamainaren arabera aztertu daiteke. Soldatapekoen %70 honelaxe banatzen ziren 2017. urtean: %20, 99 langile baino gehiagoko enpresetan; %21, 11-99 langileko enpresetan; eta %29, 11 langile baino gutxiagoko enpresetan. Autonomoak, ordea, afiliatuen %30 dira. Hasteko, ehuneko horiek ahultasunez aldatu dira autonomoen kopurua %28 jaitsi zelako 2023ko martxoan, eta soldatapeko langileen %72 honelaxe banatzen dira: %21, enpresa handietan; %23, enpresa ertainetan; eta %28, enpresa txikietan, langileei buruzko aurreko zenbakien arabera.

Hasieran testuingururatu ondoren, bost azterketa-lerro ezarri dira azterlan honetan: negozio txikien eta autonomoen azterketa; merkataritzako enpresa handiak; negozio berriak; belaunaldien txandaketa, migrazioa eta sektoreen arteko iragaitza modu berezian kontuan hartuta; eta, azkenik, merkataritzako azpisektoreen azterketa.



Autonomoen eta saltegi txikien analisiaren ondorioz lortutako lehenengo datuen arabera ikusten denez, 7.095 afiliazio galdu dira 2017tik 2023ra, eta galerari buruzko zenbakiak nahikoa antzekoak izan dira autonomoentzat (3.868 gutxiago) eta saltegi txikietako soldatapekoentzat (3.227 gutxiago epealdi horretan).

Oraindik ere, emakumeak nagusi dira bi enplegu-araubideetan, baina zahartzapenak eragin handiagoa dauka autonomoen artean, eta 30 urtetik beherako langile gutxi laneratu dira bertan. Atzerritarrak bikoiztu egin dira, baina batez ere Amerikakoak eta Afrikakoak. Azpisektoreen artean, supermerkatu orokor txikiak hazi dira, eta elikagaien, kontsumoko produktuen zein etxeko gauzen dende egin dute behera. Nabarmendu egin beharra dago soldatapeko langileen artean kontratu mugagabeek egin dutela gora.

Mikrodatuen analisi enpirikoaren bidez lortutako emaitzek merkataritza-sektorearen ezagutza hobetu eta politika publiko eraginkorrak bermatzen dituzte.

Lehenengo azterlana **Enfokamer Euskal Merkataritzaren Behatokian eta ISEAK Fundazioaren** webgunean dago eskuragarri. Bigarrena urte amaieran egongo da eskuragarri.